

DOITASUNEZKO MEKANIZAZIOAK **SEKTORE AEROESPAZIALERA**



Aeroespaziala

Sektore aeroespazialerako daukazu partnerra

Goimeken espezialistak gara mekanizazioko erabateko soluzioetan. Esperientzia sendoa daukagu sektore zorrotzetan pieza estrategikoak mekanizatzeko prozesu aurreratuetan, esaterako sektore aeroespazialean, non 30 urte baino gehiago daramatzagun bezero bakoitzaren premietara egokitutako soluzio pertsonalizatuak aplikatzen.

Punta-puntako instalazioak ditugu, doitasun eta produktibitate handiko makinez hornituak, mekanizaziorik aurreratuenak garatzeko, zeinak azken belaunaldiko egiaztapen bitartekoekin osatzen diren.

Gure ekoizpen lantegia Itziarko industrialdean kokatzen da. Makina-erremintaren sektorean kokagune tradizional batean, eta kokapen bikaina da piezen logistika errazteko, bai eta nazioarteko bezeroen bisita errazteko ere, Bilboko aireportutik 45 minutura eta Miarritzeko aireportutik ordubetera bait dago.

**30
urte**

baino gehiago sektore
aeroespazialerako
soluzioak eskaintzen



Danobatgroupen parte

Goimek Danobatgroupen parte da, hau da, Mondragon Korporazioak, Europako industria talderik garrantzitsuenetakoak, duen makina-erreminten dibisioaren parte.

Horrek ezagutza industrial eta finantza kaudimena ematen dizkigu, zeinarekin etorkizuneko erronkei erantzuten jarraitu ahal dugun, pertsonetan eta lankidetzan oinarritutako kultura eta printzipioak abiapuntu hartuta.

Kopuruak

	 MONDRAGON	 DANOBATGROUP	 GOIMEK
Guztizko salmentak (M.€)	>11.000	>300	>11
Lanpostuak	>80.000	>1.400	>85

I+G+B

Goimeken lankidetzak estua dugu Idekorekin, fabrikazio aurreratuko teknologietan espezializatutako zentro teknologikoarekin, eta aktiboki lan egiten dugu harekin, bai talentuaren transferentzian, bai gure proiektuetarako instalazio aurreratuak erabiltzen.

2.000 m2 baino gehiago, bi eraikinetan banatuta, mekanizazio prozesuak eta prozesu horiei lotutako teknologia baliozkotzeko eta probatzeko:

- DGIH (Digital Grinding Innovation Hub).
- Robotikarako eta gehigarriarako espazioa.
- Laborategiak: doitasuneko, ikuskapeneko eta neurketako sistemena, prestazio handien dinamikarena, konpositeena, laserrarena eta digitala.




Aeroespaziala

Balio erantsi handiko soluzioak

Goimeken esperientzia zabala eta lantalde tekniko espezializatu bat ditugu sektore aeroespazialerako material desberdinez eginiko piezen mekanizazioan, esaterako, titanioz, aluminioz, altzairu herdoilgaitzez, inhonelez, invarrez eta abarrez egindako piezena.

Proiektu nabarmenetan parte hartu dugu, hala nola Perseverance, Gaia, Solar Orbiter, MTG, Exomars edo Juice proiektuetan, eta horiei esker eskuratu ditugu hain sektore zorrotzak dituen mekanizazio premia espezifikoetarako erantzuteko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak, gure bezeroei balio erantsi handiko soluzioak eskaintzeko.






#01

HP Compressor



#02

Case (MTG)



#03

Optical Bench (Flex)




#04

Door (Solar Orbiter)




#05

Housing (Solar Orbiter)



#06

Azimut (Solar Orbiter)



#07

Azimut Bracket



#08

Box Base (Tumag)



Malgutasuna eta aholkularitza aditua

zerbitzurik onena eskaintzeko

Horrelako sektore tekniko batean, moldagarritasunak bikaina izan behar du, une bakoitzean proiektu bakoitzaren eskakizunetara egokitzeko. Gure egiturak aukera ematen digu eskatzen den edozein aldaketari arintasun handiz erantzuteko, prozesu guztien trazabilitatea galdu gabe.

Malguak gara proiektu konplexuek eskatzen dituzten aldaketetarako, eta badakigu bezeroaren diseinu aldaketetara egokitzen, eta fabrikaziorako aholkularitza ere eskaintzen dugu, bai pieza bakarreko proiektuetan, bai pieza edo pakete askotariko proiektuetan.

Era berean, sektorean dugun esperientzia eta espezializazioan oinarrituta, laguntza teknikoa eta profesionala eskaintzen dugu mekanizazio ingeniarriz, esperientzia handiko ingeniari talde batekin, zeinak, bezeroarekin lankidetzan, piezen ekoizpenerako eta mekanizaziorako prozesuak ebaluatzen dituen eta horiek optimizatzeko soluzioak ematen dituen.

#09

Central Body (MWI)

Kalitatea, zerbitzua eta bitarteko espezializatuak

Goimeken kalitatean eta zerbitzuan oinarritutako kultura batekin lan egiten dugu, eta sektore aeroespazialeko piezek eskatzen dituzten berme guztiak eskaintzen ditugu.

Gure bezeroen partner estrategikoa gara. Bezeroek guran konfiantza dute, prozesu osoan lagun diezaiegun, beren piezak mekanizatzeke prozesurik eta emaitzarik onenak bermatzeko.

EN9100, ISO 9001, ISO 14001 eta ISO 45001 ziurtagiriak ditugu, bai eta zerbitzu integrala, ekoizpen baliabide aurreratuak eta azken belaunaldiako neurketa bitartekoak ere, eta horiei esker konponbide pertsonalizatuak, eskakizun handikoak eta ahalik eta doitasun handienekoak eskaini ahal ditugu.

HONAKO ZIURTAGIRI HAUEK DITUGU:

EN 9100

ISO 14001

ISO 45001

ISO 9001

Zerbitzu integrala


Gure bezeroei zerbitzu integrala eskaintzen diegu, proiektuaren fase bakoitzean balioa emanda.



Lankidetzat
teknikoa
diseinu
fasean




Ingeniaritza
konkurrentea



Materialen
erosketaren
kudeaketa



Mekanizazioa
planoaren
eta eskakizun
teknikoen
arabera



Tratamendu
termikoa eta
gainazalekoa




Egiaztapen
Zerbitzua




Kalifikazioa
eta bermea

Neurtzeko eta programatzeko bitartekoak



CMM ZEISS:

- MMZB (x=2.000; y=5.000; z:1.500)
- Zeiss Accura (x=1.200; y=3.000; z:1.000)
- Zeiss Prismo 4. ardatzarekin
- Egiaztapeneko eta kontrolako ekipak



- CAD / CAM
- Turbomachinery, Impellerren programaziorako
- TDM (tool data base)
- Vericut (simulazioa)
- Gure baliabideen mantentze lanak eta kalibrazio aktiboak

Ekoizpen baliabideak

sektorearen eskakizunen mailan

Sektore aeroespazialeko gure bezeroek eskatutako kalitatea eta zehaztasuna bermatzeko beharrezkoak diren azken belaunaldiko ekoizpen bitartekoak ditugu.

Askotariko ekoizpen bitartekoak ditugunez, oso tarte zabala hartzen dugu piezaren tamainari dagokionez: pieza txikietarako makinak, 500 mm baino gutxiagoko kuboak, eta 16 metro arteko luzera duten piezak mekanizatzen dituzten makinak ere bai.

Hauek dira pieza aeroespazialak mekanizatzeko ditugun makina adierazgarrienetako batzuk:



5 ardatzeko mekanizazio zentroak

HERMLE C40U X MEKANIZAZIO ZENTROA

X: 850 mm Y: 700 mm Z: 500 mm

NC Meso zirkular orientagarria 5 ardatz

Eusteko gainazala: Ø 420 mm

Kontrola: Heidenhain iTNC 530

Tresnak aldatzea: Pick Up 38 unit.

Karga ahalmena: 600 kg

HERMLE C42U MEKANIZAZIO ZENTROA

X: 800 mm Y: 800 mm Z: 550 mm

NC Meso zirkular orientagarria 5 ardatz

Eusteko gainazala: Ø 420 mm

Kontrola: Heidenhain iTNC 530

Tresnak aldatzea: Pick Up 80 unit.

Karga ahalmena: 600 kg



Neurri handiko fresatzeko makinak

SORALUCE FS 16000 FRESATZEKO MAKINA

Ibilbidea: X: 16.000 mm Y: 3.600 mm Z: 1.500 mm

Mahai errototraslantea: 3.000 x 2.500 mm

5 ardatz jarraituko burua



Goimek

Itziar Industrialdea, 2. Partzela · P.O. Box 5 - Deba (Gipuzkoa) - Spain

+34 943 60 63 15

www.goimek.com

DANOBATGROUP

